



EBAZPENA, TRAFIKOKO ZUZENDARIARENA, 2025EKO ABENDUAREN 15EKOA, FRANTZIAN TRAFIKOARI ERAGINDAKO KALTEEN ONDORIOZ EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN TRAFIKOA ARAUTZEKO NEURRI BEREZIAK EZARTZEN DITUENA.

Frantzian behien inguruko krisiak trafikoari eragindako azken kalteak direla eta, Trafiko Zuzendaritzak neurriak hartu behar izan ditu Euskal Autonomia Erkidegoko pertsonen eta errepideen segurtasuna babesteko.

Frantziako Gobernuak Biriaturko bidesaria itxi berri izan du gaur, 2025eko abenduaren 15ean, 12:00etatik aurrera.

Hori dela eta, bide-segurtasuna arriskuan ez jartzeko eta aipatutako salbuespenezko egoerak irauten duen bitartean, trafikoa arautzeko neurri bereziak hartu behar dira, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen 18. artikulua araber. Artikulu horrek trafiko-agintaritzak eskudunari esleitzen dio trafikoa arautzeko neurri bereziak hartzeko ahalmena, zirkulazioaren segurtasun edo arintasun arrazoiek hala gomendatzen dutenean.

Azaldutakoagatik, eta Zirkulazioko Erregelamendu Orokorraren 37. eta 39. Artikuluetan ezartzen den araber, trafikoari eta ibilgailuen zirkulazioari buruzko Estatuko legeria Euskal Autonomia Erkidegora transferitzen duen urriaren 15eko 3256/1982 Errege Dekretuaren eranskineko B.1.g) idatz-zatian ezartzen den araber, eta Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 318/2024 Dekretuan ezarritakoaren araber, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- 7.500 kilotik gorako mugez gaindiko ibilgailu astunen zirkulazioa murriztea.

Mugaz gaindiko 7.500 kilotik gorako ibilgailu astunek debekatuta dute Euskal Autonomia Erkidegoko bide publikoetan zirkulatzea 2025eko abenduaren 15eko 12:00etatik aurrera, harik eta Frantziako Gobernuak ebazpen hau eragin duen gorabeheraren konponbidea jakinarazi arte eta egoera normaltasunera itzuli arte.

Momentu horretan Ertzaintzari dagozkion jarraibideak emango zaizkio, eta dagozkion publizitatea emango zaio.

Bigarrena.- Gainerako ibilgailuak.

Lehenengo atalean aipatutako kategorien barruan sartzen ez diren gainerako ibilgailuek normaltasunez zirkulatu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko bide publikoetatik.

Hirugarrena.- Publizitatea.

Ebazpen hau garraiolarien elkarte nagusiei edo baliokideei jakinaraziko zaie, eta Trafiko Zuzendaritzaren webgunean argitaratuko da, interesdunak jakinaren gainean egon daitezen. Halaber, Ertzaintzari dagozkion jarraibideak emango zaizkio.

Laugarrena.- Indarraldia.

Ebazpen hau 2025eko abenduaren 15eko 12:00etatik aurrera jarriko da indarrean, eta indarrean egongo da hura eragin duen kausa desagertu arte.

Gasteiz, 2025ko abenduaren 15a

Estibaliz Olabarri González
TRAFIKOKO ZUZENDARIA